

ARTIUM MUSEOA 2021EKO ERAKUSKETAK

LOREA ALFARO GERARDO ARMESTO TXARO ARRAZOLA Pentsatzeko leku bat. **Euskal Herriko arte-eskola eta -praktika esperimentalak (1963-1973)** **ANTONIO BALLESTER MORENO JUNCAL BALLESTÍN MADDI BARBER+MARNA LAMEIRO NADIA BARKATE ERIC BAUDELAIRE KATINKA BOCK MARIANA CASTILLO DEBALL JUNE CRESPO MOYRA DAVEY PATRICIA ESQUIVIAS JOSÉ FÉLIX GONZALEZ PLACER DANIEL LLARÍA ROSALIND NASHASIBI XABIER SALABERRIA** ZERU BAT HAMAIKA BIDE. **PRAKTIKA ARTISTIKOAK EUSKAL HERRIAN 1977-2002 ALDIAN. BIGARREN BIDEA**

ERAKUSKETA PROGRAMA ARTIUM MUSEOA 2021

- Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa bere lan-ildo nagusiak garatzen dituzten banakako eta taldeko erakusketen programa aurkeztera dator. 2021eko ardatz nagusiak dira, orobat, emakume artistak aldi baterako erakusketen programan eta Bilduman sartzea eta baita ondare publikoa kontserbatzea eta ikertzea ere.
- Aurten, gainera, Artium Museoak arte- eta hezkuntza-praktiken arteko loturak aztertuko ditu. Horretarako, hirurogeiko hamarkadaz geroztik Euskal Autonomia Erkidegoan artearen eta pedagogiaren arteko gurutzaketak eta trukeak jorratzen dituzten bi erakusketa kolektibo egingo dira, eta artearen ikasketak elementu eraldatzaile gisa duen gaitasunari erreparatu izan dioten esperientzia historikoak ekarriko dira gogora. Testuinguru horretan, eta Tabakalera KGN-Zrekin elkarlanean, JAI (praktika artistikoetarako Institutua) ikasketa-programaren bigarren edizioa egingo da.
- Zinema eta mugimendudun irudia ere ardatz nagusi izango dira 2021 programan; izan ere, artistek eta zinemagileek ekoiztiko filmak erakusketa-gune berri batean (Z aretoan) erakusteko proiektu bat jarriko da abian. Maiatzean hasiko da, nazioarteko artista talde batekin, eta guztiak Museora etorriko dira bisitan.

Aldi baterako erakusketak A1, A2, A3 eta Z aretoak

MOYRA DAVEY (Toronto, 1958) eta JUNE CRESPO (Iruñea, 1982) artisten erakusketekin batera, Artium Museoak JUNCAL BALLESTÍN (Vitoria-Gasteiz, 1953-2015) artistari eskainitako erakusketarekin emango dio hasiera urtarrilean 2021eko erakusketa-programazioari. Fernando Illanaren komisariotza-lana izan duen *Bizitza ariketa gisa* erakusketa datorren urtarrilaren 29an inauguratuko da, eta ANESVADen, artistaren ondarearen oinordekoa den GKEaren, laguntzarekin egindako proiektua da. Erakusketa honetarako Museoko aretoetan ikusgai egongo diren pieza askoren zaharberritze prozesu konplexu bat burutu behar izan da; bertan, gainera, lan argitaragabeak eta 2015ean hil zen sortzailearen beste lan historiko batzuk aurkezten dira.

Martxoan, A2 Aretoan, KATINKA BOCKen (Frankfurt am Main, 1976) erakusketa monografikoa aurkeztuko da. Erakusketa horren ekoizpenean Albaola euskal itsas faktoriak parte hartu du. Maiatzean, berriz, XABIER SALABERRIA (Donostia, 1969) artistaren erakusketa irekiko da A1 aretoan, Erakusketa-gailuen eraikuntzari eta arkitekturari buruzko gogoeta egiten duen ekoizpen batekin.

Udazkenean, TXARO ARRAZOLARI (Vitoria-Gasteiz, 1963) eta MARIANA CASTILLO DEBALLI (Mexiko Hiria, 1975) eskainitako erakusketak izango dira ikusgai Museoko aretoetan, azken hau Alemaniako Museum für Gegenwartskunst Siegen-ekin eta MUAC - Mexikoko Arte Garaikidearen Unibertsitate Museoarekin elkarlanean. Xabier Arakistain eta Catalina Lozano dira 2021eko erakusketa monografikoen zikloa itxiko duten erakusketa horien komisarioak.

Bestalde, 2021eko udaberrian erakusketa-ziklo berri bat jarriko da abian, praktika artistikoak eta hizkuntza filmikoak uztartzuz: Z (zinema) aretoan, Museoko erakusketa gunean prestatutako espazio berrian, mugimendudun irudiarekin

lan egiten duten zinemagile eta artisten proiektzioak aurkeztuko dira. Zikloa Garbiñe Ortegak komisariatuko du 2021ean Museoko arduradunekin batera, eta bertan nazioarteko egile ezagunen filmak programatuko dira: PATRICIA ESQUIVIAS (Caracas, 1979), ERIC BAUDELAIRE (Salt Lake City, AEB, 1973), edo ROSALIND NASHASIBI (Croydon, Londres, 1973). Z aretoan MADDI BARBER (Lakabe, Nafarroa, 1988) eta MARINA LAMEIRO (Iruñea, 1986) zinemagileen arteko lankidetzatik sortutako pieza berri bat estreinatuko da, MONDRAGONen lankidetzarekin ekoitzia.

Uztailean egingo da agerikoa PLAZARATU programaren ibilbide publikoa. Artiumek sustatutako ekimena da, erabilerak birpentsatu eta Museoaren barruko plaza aktibatzeke, kultura-ekipamenduaren eginkizuna kokatuta dagoen hiri-ingurunearekin eta ingurune sozialarekin lotuz. Programa hori udako hilabeteetan *Norberak eraikitzea. Pieza solteak. Esperientzia. Lana eta jolasa* erakusketarekin lotuko da, ANTONIO BALLESTER MORENO (Madril, 1977) artistaren eta Ángel Calvo Ulloa komisarioaren proiektuarekin, eta A3 aretoan garatuko da. Espazio horren ezaugarria Artiumen barruko plazarekin berehalako lotura izatea da. Beste erakunde eta eragile batzuen artean, Dinamo Azpeitiko Sormen Gunearekin eta Barrutia Ikastolarekin elkarlanean garatuko da. Bigarrenak bi urte daramatza Magnet-Erakarri programaren esparruan Museoarekin batera lanean.

Azaroan, ikerketa- eta erakusketa-proiektu berri batek hartuko du haren lekua, hirurogeiko hamarkadaz geroztik Euskal Herrian Artearen transmisioarekin LOTUTAKO HEZKUNTZA-ESKOLA ETA -PRAKTIKA ESPERIMENTALEI eskainia. Mikel Onandia, Rocio Robles Tardío eta Sergio Rubira izango dira komisarioak. Erakusketa hori Altzuzan dagoen Jorge Oteiza Fundazio Museoarekin lankidetzan egingo da, ondare artistiko garaikidearen kontserbazioan eta ikerkuntzan diharduten bi erakundeak uztartuz.

Artium Museoaren bilduma A0 aretoa, eta A01 eta A02 eranskinak

Martxoan aurkeztuko dira *Zeru bat, hamaika bide. Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian* Bildumaren erakusketarekin lotutako funtsen eta azterketa-kasuen lehen txandakatzeak. Museoak, egungo erakusketaren barruan, ibilbide berri bat proposatuko du, BIGARREN BIDEA, erakusketaren kronologiaren lehen hamarkadetan feminismoak taxututako eztabaidei eta artearen praktikei euskal artistek egindako ekarpenetan sakontzeko.

Emakume artistak Bilduman sartzea eta ondare publikoa kontserbatzea eta ikertzea dira, besteak beste, *Bigarren bideak* lantzen duen erakundearen proiektuaren ardatz nagusiak, Museoak berriki erosi dituen euskal artisten funtsezko lanak sartzeko baititu bere ibilbideetan. Esparru horretan, aipatzekoak dira apirilean egingo den *Ikuspegi feministak ekoizpen artistikoetan eta artearen teoretan* ikastaroa, eta *Hasieratik. Zinema feministaren historiak* zinemazikloa, Tabakalera KGNZrekin elkarlanean antolatua, Museoaren urte osoko programazioa zeharkatzen duena.

Udazkenean, *Zeru Bat* erakusketaren inguruko bigarren berrikuspenak hartuko du A0 aretoa: Euskal Herriko Arte Garaikideko Museoan gordeta dauden eta bilduma publikoetatik eta Eusko Jaurlaritzak bultzatutako GURE ARTEA saritik datozen lanen sorta hautatuaren aurkezpena.

Proposatutako Bildumako artelanen txandakatzeak Euskal Herriko testuinguruan ikusizko arteen diskurtsoen eraikuntzara hurbiltzeko funtsezkoak diren artista eta lanen sorta garrantzitsu bat aurkeztuko du, 1982an sortu zenetik, 2022an — Museoak 20. urteurrena ospatzen duen aldi berean — lau hamarkada beteko dituen sari batekoak.

A01 Eranskinean, Gasteizko Musika Bideo Jaialdiari buruzko egungo erakusketari beste bi egitasmok kenduko diote lekua hurrenez hurren: batetik GERARDO ARMESTO (Vitoria-Gasteiz, 1949) artistaren laurogeiko hamarkadako ikus-entzunezko ekoizpenari eskainitako proiektuak eta Museoaren funtsen parte den JOSÉ FÉLIX GONZÁLEZ PLACER (Vitoria-Gasteiz, 1951-1991) artistaren gordailuak.

Azkenik, eta Bildumaren inguruko lanarekin jarraituz, otsailean erakusketa-programa berri bat jarriko da abian, TESTUINGURUAK bildumatik abiatuta izenekoa, Artiumen funtsetan berriki sartutako artelanak dituzten artisten inguruko erakusketak.

Eraikitzen ari den bilduma denez, Museoak ondare historikoaren kontserbazioari garrantzia ematen dio, eta, aldi berean, azken urteotako artista esanguratsuen praktika garaikideak ekoizten eta proiektatzen ditu. TESTUINGURUAK programan ondokoen erakusketak izango dira hurrenez hurren ikusgai: DANIEL LLARÍA (Errioxa, 1985), NADIA BARKATE (Bilbo, 1980) eta LOREA ALFARO (Lizarra, 1982).

ERAKUSKETAK

A1, A2 eta A3 aretoak

- 8 Juncal Ballestín
- 9 Katinka Bock
- 10 Xabier Salaberria
- 11 Norberak eraikitzea. Pieza solteak.
Esperientzia. Lana eta jolasa
- 12 Mariana Castillo Deball
- 13 Txaro Arrazola
- 14 Pentsatzeko leku bat. Arte Eskola eta praktika
esperimentalak Euskal Herrian (1963-1973)

Z aretoa

- 16 Patricia Esquivias
- 17 Maddi Barber/Marina Lameiro
- 18 Rosalind Nashashibi
- 19 Eric Baudelaire

ARTIUM MUSEOA BILDUMA

A0 aretoa

- 22 Zeru bat hamaika bide: Bigarren bidea
- 23 Ondare publikoa eraikiz

A01 aretoa

- 25 Gerardo Armesto
- 26 José Félix González Placer
- 27 Komisario berriak 2021

A02 aretoa


- 29 Daniel Llaría
- 30 Nadia Barkate
- 31 Lorea Alfaro



Juncal Ballestín



Katinka Bock



Xabier Salaberria



Mariana Castillo Deball



Txaro Arrazola



Antonio Ballester Moreno

ERAKUSKETAK

A1, A2 eta A3 aretoak

Artium Museoaren erakusketa-programa dimentsio bikoitz batetik abiatuta pentsatu da; lehenengoa ondarearena da, arte garaikidearen bilduma handi baten egoitza gisa; bigarrena, berriz, dinamikoa da eta gure tokiko testuingurua egituratzen du nazioartekoaren laguntzarekin.

Ildo horretan, Euskal Herrian nazioarteko korronteekin etengabeko elkarrizketan garatzen diren praktika artistikoen eta arteari buruzko eztabaida teorikoen aniztasuna jasoko du Museoak.

2021ean, beste kultura-gune eta -erakunde batzuekin elkarlanean arituko da Museoa, eta sareak sortuko ditu testuinguru hurbileneko eta nazioarteko beste proiektu batzuekin.



A Meret. Juncal Ballestín, 1986

Juncal Ballestín

Bizitza ariketa gisa

A3 aretoa

2021eko urtarrilaren 29tik maiatzaren 16ra

Juncal Ballestinen (Vitoria-Gasteiz, 1953-2015) lana serieetan antolatutako obra-multzoen inguruan egituratzen da, eta pinturari eskaintzen dio leku nagusia. Erakusketa honetarako, artistak berak ezarritako sailkapena errespetatu da Artium Museoan eta bi talde handi egin dira, bata pintura sailekin eta bigarrena hiru objektu sailekin lotuz: 1983-1992 bitarteko objektuak, nortasun handiko objektuak eta mugarik gabeko indarkeria. Bi bloke horiei inolako sailik osatzen ez duten baina artistaren ibilbidera hurbiltzeko funtsezkoak diren lanak gehitu behar zaizkie.

Garai hartan Bilboko Arte Ederren Goi Eskola deiturikoan ikasi ondoren, erabilitako material, baliabide eta tekniken aniztasuna ezaugarri duen lan bat garatu zuen Juncal Ballestínek: pintura, marrazketa, instalazioa, bideoa, obra grafikoa... Bakarkako lehen erakusketak Gasteizko Eder Arte galerian (1978), Bilboko Rekalde galerian (1979) eta Araba Aretoan (1980) egin zituen, eta aipatzekoak dira gerora Amarika Aretoan (1993), CM2 galerian (1996), Trayecto galerian (1998, 2005 eta 2008) eta Montehermoso Kulturunean (2008) egindakoak. Besteak beste, Artium Museoko, Gasteizko Udaleko, Vital Fundazioko eta Liburutegi Nazionaleko bildumetan dago ikusgai haren lana.



Gisant. 2019 Katinka Bock. Argazkia: Pierre Antoine.

Katinka Bock

Log Book (Ontziko liburua)

A2 aretoa

2021eko martxoaren 27tik irailaren 12ra

Katinka Bock-en (Frankfurt am Main, 1976) lana eskulturaren, arkitekturaren eta hizkuntzaren alorren arteko etengabeko elkartrukean dabil. Artistaren hitzetan, bere ekoi-zpena, askotan, arrazionalak eta ezustekoak elkarrekin topo egiten duten lan prozesu baten emaitza da. Horrela, bere piezak txertatzen diren espazioa definitu egiten du erakusketak bakoitzak, lekua aldatzen duten eta harengan eragina duten esku-hartzeak abiapuntu hartuta, ateak, leihoak eta tunelak irekiz edo ustekabeko elementu berriak gehituz.

Log Book [Ontziko liburua] artistari Estatuan egiten zaion lehen erakusketak oraintsuko lanak, hainbat testuinguru eta historia aztertzearen emaitza direnak, aztertze aukera ematen digu. Erakusketan, besteak beste, artistak bertako artisauei proposatutako trukeen eta Museoen espazioarekin eta arkitekturekin egindako lanaren ondorioz sortutako piezak daude.

Katinka Bock-ek Berlingo Kunsthochschulen eta Lyongo École Nationale des Beaux Arts-en ikasi zuen. Erromako Villa Medici egoitzan artista izan da, Dorothea von Stetten Kunstpreis saria jaso du Alemanian eta Prix Ricard saria Frantzian. Hainbat bakarkako erakusketa egin ditu, besteak beste, Culturgest-en (Lisboa, Portugal); Kunstmuseum Stuttgart-en eta Nuremberg Kunstverein-en (Alemania); MAMCO-n (Geneva) eta Kunstmuseum Luzern-en (Suitza); Henry Art Gallery-n (Seattle, AEB); Mercer Union-en (Toronto, Kanada) eta Common Guild-en (Glasgow, Eskozia).

2018an bere *Tomorrow 's sculpture* erakusketa-proiektua (trilogía) ondoko hiru lekuetan erakutsi zuen: Kunstmuseum Winterthur, Suitza, Mudam Luxemburg, Luxenburg eta Institut d' Art Contemporain Villeurbanne, Frantzia. Azken bakarkako erakusketak Pivo-n, Sao Paulon, Brasilen, Lafayette Anticipation-en, Parisen, Frantzian eta Kestnergesellschaft Hannover-en, Alemanian, egin ditu.

Laguntzailea: ALBAOLA, Itsas Kultur Faktoria
Komisariotza: Beatriz Herráez



Persil (isla, Latitud 35° 54' 48,11" N, longitud 5° 25' 03,34"), 2015

Xabier Salaberria


Arkitekturarik gabeko erakusketa bat

A1 aretoa

2021eko maiatzaren 21etik urriaren 17ra

Xabier Salaberria (Donostia, 1969) eskulturaren, diseinuaren eta arkitekturaren esparruetan mugitzen da. Eskulturaren praktikarekin eta erakusketen diseinuarekin lotutako tekniken eta materialen historiaren azterketan oinarritzen da haren lana. Argazkia, marrazkia eta instalazioa erabili ditu artistak Artium Museoko erakusketaren testuinguruan ekoiztutako proposamenetan. Hainbat erakusketa-gailuren azterketatik abiatuta espazio hori interpretatu egin du eta bertan esku hartu du, aretoetan ibilbide-sistema bat marraztuz museografiaren alderdi teknikoen, arkitekturaren funtzioen eta historiaren, paisaiaren eta lurraldearen irudikapenaren artean proposatutako gurutzaketetan barneratzeko.

Azken hamarkadako bakarkako erakusketen artean, honako hauek aipa daitezke: *Entremuebles/entre el mueble y el inmueble*, Miel Oyarzabalekin egindako lankidetzatza Bulegoa z/b-n, Bilbo (2020); *R de Radio*, CarrerasMugica Galerian, Bilbo (2020); [*martillo puño-flecha dedo*], Parallel galerian, Mexiko DFn (2017) eta *Proceso y Método. (A.T.M.O.T.W.)*, Guggenheim Bilbao Museoan (2013). Era berean, hainbat talde-erakusketatan parte hartu du, hala nola *El Sauce ve de cabeza la imagen de la garza*, Tenerifeko TEAn (2020); *Ganar Perdiendo*, Madrilgo Centro Centro-n (2019); *Restos materiales, obstáculos y herramientas*, Sao Pauloko 32. biurtekoan (2016); edo *Une Machine désire de l' 'instruction comme un jardin désire de la discipline*, FRAC Lorraine de Metz-en (2014).



Antonio Ballester Moreno, 2020

Norberak eraikitzea. Pieza solteak. Esperientzia. Lana eta jolasa

Antonio Ballester Moreno

A3 aretoa

2021eko ekainaren 25etik azaroaren 1era

Norberak eraikitzea. Pieza solteak. Esperientzia. Lana eta jolasa, lehenik eta behin, ohiko erakusketa bat ez izateko planteatu eta pentsatu da, eta, bigarrenik, okupatzen duena ez den beste espazio batetik ulertu ahal izateko: plaza batetik, parke batetik, eskola bateko patio batetik edo egunero gabiltzan kaleetatik.

Plazaratu (erabilerak birpentsatu eta BARRUKO PLAZA aktibatzeke Museoak sustatutako ekimena) egitasmoaren eremu esperimentalean txertaturik, Antonio Ballester Morenok (Madril, 1977) norberak egindako eraikuntzan eta jolasean oinarritutako esperientzia historiko batzuk berrikusi ditu proiektu honetan. Esperientzia horiek guztiak 60ko eta 70eko hamarkadetan sortu ziren, eta lanerako abiapuntu izango den magma teoriko-praktiko bat osatzen dute. Ikaskuntzaren eragile nagusi gisa sormena garatzea helburu duten proiektuetan inplikaturik egonik, egileak, erakusketa aparatu gisa arautzen duten ohiko arauetatik aske egongo den espazio bat ez ezik, elkarlaneko lantoki bat ere planteatzen du, non bere praktikak egiteko modu espontaneoekin solasean arituko diren.

Ballester Morenok bakarkako erakusketak egin ditu Valladolideko Patio Herreriano Museoan, Madrilgo La Casa Encendida museoan, Mexikoko Guadalajarako MAZ museoan, Leongo MUSAC museoan, Madrilgo MaisterraValbuena galerian, Lisboako Pedro Cera galerian, Santa Monicako Christopher Grimes museoan eta Berlingo zein Los Angeleseko Peres Projects museoetan. Talde-erakusketetan ere parte hartu du, hala nola Sao Pauloko 33. biurtekoan, artista eta komisario gisa, Michigango MSU Broad Museum-en, Madrilgo CA2Men, eta New York, Berlin eta Los Angeleseko galerietan, besteak beste. Bere lana bilduma hauetan dago: Reina Sofía Arte Zentro Nazionalan, MUSACen (Leon), CA2Men



No acabarán mis flores, 2013 (performancea)

Mariana Castillo Deball

Amarantus

A2 aretoa

2021eko urriaren 1etik 2022ko martxoaren 13ra

Mariana Castillo Deballen (Mexiko Hiria, 1975) praktika hizkuntzarekiko hurbilketa kaleidoskopikoan oinarrituta dago; hainbat alorretara hurbiltzen da — arkeologia, zientzia, literatura eta teknologia — mundua nola eta nondik deskribatzen duten esploratzeko. Sarritan arte garaikidearekin zerikusirik ez duten museo eta erakundeekin elkarlanean, zientziaren, narrazioaren, fikzioaren eta ikusizko arteen arteko zirrikituak lantzen ditu Castillo Deballek. Mexikoren koloniaurreko historia une batzuetan eta besteetan ulertu eta ikertu den moduei buruzko haren lanek multzo zabala osatzen dute. Erakusketa Alemaniako Siegen hiriko Arte Garaikidearen Museoarekin elkarlanean antolatu da.

Mariana Castillo Deballen lana ikusgai egon den lekuak: Reva and David Logan Center for the Arts, University of Chicago, AEB (2018), Amparo Museoa, Puebla, Mexiko (2018), SCAD Museum of Art, Savannah Georgia, AEB (2018), Galerie Wedding, Berlin, Alemania (2017), San Francisco Art Institute, San Frantzisko, AEB (2016), Oaxacako Arte Garaikidearen Museoa, Mexiko (2015), Hamburger Bahnhof, Berlin, Alemania (2014); CCA, Glasgow, EB (2013); Chisenhale Gallery, Londres, EB (2013); Museo Experimental El Eco, Mexiko Hiria, Mexiko (2011); talde-erakusketetan ere egon da: 8 Berlin Biennale, (2014), documenta 13, Kassel (2013) eta 54th Venice Biennale, Venezia (2011).



Gdaim Izik. Txaro Arrazola, 2011

Txaro Arrazola


Ustiaketa bikaina

A1 aretoa

2021eko azaroaren 5etik 2022ko martxoaren 13ra

1980ko hamarkadaren amaieraz geroztik, Txaro Arrazolak (Vitoria-Gasteiz, 1963) ikuspegi eta teknika batzuen eta besteen bidez gizakien esplotazioari eta baliabide naturalen ustiaketari behin eta berriz begiratzen dion obra multzo sendo bat sortu du. Langile-klaseen esplotazioa, pobreziaz eta suntsipenez betetako formatu handiko margolanetan irudikatu du —berak gizarte-paisaiak esaten die—, eta emakumeen eta haien gorputzen esplotazioa askotariko formatuetako beste obra batzuetan.

Arrazola Arte Ederretan lizentziatu zen EHU 1988an. Fulbright beka (1996-1997) eta MFA izan zituen Purchase College izeneko New Yorkeko Estatu Unibertsitatean (1996-1998). Arte ederretan doktorea (2012). Haren lanaren ezaugarri nagusiak konpromiso soziala, ordezkaritzaren kritika feminista eta elkarlaneko metodologiaren ikerketa dira. Margolaritzan oinarritutako bere bakarkako praktika artistikoa diziplinaz gaindiko proiektuekin eta talde-proiektuekin uztartzen du, besteak beste, Plataforma A kolektiboarekin espazio publiko ekintzetan egindakoekin. Haren lanak ondokoetan egon dira, besteak beste, ikusgai: Vanguardia galerian (Bilbo, 2019, 2014, 2011, 2007), Pedro Modesto Campos Fundazioan (Tenerife 2007), Montehermoso Kulturunean (Vitoria-Gasteiz, 2008, 2005) eta Kunstarkaden Der Stadt-en (Munich 2008).



Jorge Oteiza. Pilotari eta dantzari buruzko oharrak eta marrazkiak- (Jorge Oteiza Museoa Fundazioaren artxiboa)

Pentsatzeko leku bat. Arte Eskola eta praktika esperimentalak Euskal Herrian (1963-1973)

A3 aretoa
2021eko azaroaren 12tik 2022ko otsailaren 20ra

Proiektu honek Euskal Herriko artearen transmisioarekin lotutako pedagogiak jorratzen ditu, eta erakunde ofizialetatik kanpo eta artisten ekimenez Euskadin garatu ziren arte arloko hezkuntza-proiektuak aztertzen ditu. Jorge Oteiza izango da erakusketako pertsonaia nagusietako bat ideologo gisa eta proiektu horietako batzuen bultzatzaile gisa, euskal arte eskola bat ezartzeko izan zuen programaren barruan. Funtsezko papera jokatu zuen Elorrioko Haur Unibertsitate Pilotuaren garapenean, Juan Antonio Sistiaga eta Esther Ferrer zuzendari zirela, Frantzia arte plastikoen haurrentzako irakaskuntzan garatzen ari ziren eta Donostiako Adierazpen Libreko Lantegian aplikatzen ari ziren berrikuntza didaktikoak ezagutzen zituztelako. Debako Eskola Esperimentalean ere ezinbestekoa izan zen, prestakuntzan eta ekoizpen artistikoan berriz ezarriko ziren estrategiak eta egiturak aurreratu baitzituen. Erakusketa urte haietako testuinguruan ere kokatzen da, proiektu horietako batzuek beste hezkuntza-esperientzia batzuekin duten loturaren bidez.

Z aretoa

Zinema eta mugimendudun irudia ere ardatz nagusi izango dira 2021eko programan, maiatzetik aurrera, artista eta zinemagileek ekoiztako filmen erakusketa-proiektu batekin. Nazioarteko artista ugari etorriko da Z aretoa izeneko gune berri horretara.

Z Aretoak egile garaikideen komunitate bat —beren istorioak hizkuntzaren ahalbideak esploratzeko aukera ematen dien hainbat angelutatik kontatzeko interesa dutenak— ezagutarazi nahi die publikoei, diziplina hori historikoki kategoriatan sailkatzen duten generoak zalantzan jarriz. 2021eko denboraldiaren ezaugarri nagusia kolektibotasunaren ideari buruz ikertzen duten ikus-entzunezko piezak dira, nola jarrai dezakegun elkarrekin pentsatzen, proiektatzen eta lan egiten (orain inoiz baino gehiago).



Patricia Esquivias

Cardón cardinal

Z aretoan

2021eko maiatzaren 14tik ekainaren 27ra

Cardón Cardinal duela 26 urte jazotako gertaera baten ikerketatik sortu zen: kaktus erraldoi bat, 17 metroko garaierako eta 18 tonako *Pachycereus Pringlei* bat, Kalifornia Behereko basamortutik Sevillako 92ko Erakusketa Unibertsalerako Mexiko Pabiloiaren lorategira eramatea. Ondoren, kaktusa Sevillako Udalaren esku utzi zen, eta gaur egun, pabiloia izandakoaren aurrin ondoan bizi da.

Bideoak Mexikora egindako bidaia bat eta Sevillara egindako beste bat dokumentatzen ditu. Bidaia horretan, Esquiviasek «galdera-egile» papera hartzen du bere gain (izen hori ematen zieten indigenek espedizio handietan lurralde ezezagunetan barrena abiatzen ziren zientzialariei), jakinduriaz jabetzeari eta hura manipulatzeari nahiz ezkutatzeari hain lotuta dauden esplorazio kolonialetatik urrun. Galdera-egilea, oraingo honetan, ez da zientifikoa, ezta erregearen zerbitzura dagoen inperio bateko agentea ere; emakumea da, artista, eta bere galderekin kontakizun hegemonikoak berrikusteko elkarrizketak abiarazi nahi ditu. Kaktusak, lehen solaskideak, garai askotako testigantza dakar. Haren ezagutza partzial eta zatikatuak taxutzen du bideoaren narratiba.

Patricia Esquivias Caracasen jaio zen 1979an, eta gaur egun Madrilen bizi da. Londresko Central Saint Martins-en (1998-2001) ikasi zuen eta arte ikasketak California College of the Arts-en (2005-2007) sakondu zituen. Ondoko museo eta erakusketa aretoetan egin ditu bakarkako erakusketak: Stacion (Pristina, Kosovo), CA2M (Móstoles), Marco (Vigo), Kunsthal Winterthur (Suitza), Hammer Museum (Los Angeles), Reina Sofía Museoa (Madril), White Columns (New York).



Maddi Barber / Marina Lameiro

Izenik gabe (2021)

Z aretoan

2021eko uztailaren 2tik irailaren 12ra

Barber eta Lameiro zinemagileak uztailan estreinatuko den ekoizpen berri batean ari dira lanean. Programarako esparru gisa balio duen lan partekatua eta trukearen nozioaz jabetuz, bi sortzaileek elkarlanerako prozesu bat hasiko dute ekoizpen berrian.

Maddi Barber (Nafarroa, 1988) Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatu da eta Antropologia bisualean masterra egin du Manchesterreko Unibertsitatean. Haren lanak *Visions du Réel*, *Donostia* (Zabaltegi), *Curtocircuito*, *Zinebi*, *Alcances*, *Ji.hlava*, *Porto Post Doc* eta *Las Palmas*-eko jaialdietan ikusi ahal izan dira, besteak beste. 2019an Pirenaika ekoiztetxea sortu zuen bere lanak argitaratzeko, baina baita Ainhoa Gutierrez (*Medvedek*), Gerard Ortín (*Reserve*) eta Irati Gorostidi (*Unicornio*) artisten film laburrak argitaratzeko ere. 2018tik 2019ra bitartean diptiko bat egin zuen, film labur batek eta metraje ertaineko film batek osatua (*592 metroz goiti* eta *Urpean Lurra*), Itoizko urtegiak Nafarroako Artzibar lurraldean duen eraginari buruz. 2019an, Punto de Vista jaialdiko X-FILMS proiektuan parte hartzeko hautatu zuten, eta *Gorria* film laburra egin zuen. Une honetan bere lehen pelikula luzea lantzen ari da.

Marina Lameiro, Iruñean jaio zen 1986an, eta Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna da URJCn. IDEC-UPFren Sorkuntza Dokumentaleko masterra egin du, unibertsitate bereko Ikus-entzunezko muntaketako graduondokoa, eta New Yorkeko UnionDocsen artista egoiliarra izan da, Collaborative Studio (CoLab) delakoaren parte izanik. Hainbat dokumentalen ekoizlea, errealizadorea eta gidolaria da; horien artean *Young & Beautiful* (2018) film luzea nabarmentzen da, besteak beste, Punto de Vista Jaialdian Publikoaren Sari Berezia irabazi zuelako 2018an, Feroz sarietarako izendatua izan zelako eta 20 herrialde baino gehiagotan proiektatu delako. 2021ean bere bigarren film luzea estreinatuko du, *Dardara*. Aurretik hainbat film labur egin zituen, horien artean *300 Nassau*, New Yorkeko baliabide gutxiko pertsonen beren etxeen alde eta gentrifikazioaren aurka borrokatzen laguntzen dien abokatu elkarte batekin UnionDocs-eko egonaldian egindako lanaren emaitza; eta *Volando pero no*, Tania Hernández Velasco mexikarrarekin 2014. urteaz geroz duen truke filmikoaren zati bat.



Rosalind Nashashibi

Z aretoa

2021eko irailaren 17tik azaroaren 14ra

Rosalind Nashashibi artista britainiar-palestinarra (Croydon, Londres, 1973) bere lan zine-matografikoetatik da ezaguna, nahiz eta aldi berean margolaritza eta grabaketa ere landu dituen. Bere film gogoetatsu edo erritmo geldikoen bidez, denboraren tratamendu elastikoa iradokitzen du. Batzuetan, haren pelikuletan badirudi denbora zintzilik geratu dela. Museoko ziklo honetan parte hartzeko bere filmografiaren sorta hautatu bat aurkeztuko du artistak.

Bere azken erakusketen artean, nabarmentzekoak dira hainbat museo eta erakundetan egindakoak, besteak beste, Secession-en (Viena), The Art Institute of Chicago-n, Witte de With Center for Contemporary Art-en, (Rotterdam)... Aipatzekoa da, orobat, nazioarteko hitzorduetan izan duen presentzia ere: Veneziako 52. Bienalean, Manifesta 7n, Sharjah 10en eta documenta 14an, besteak beste. Beck Futures prize saria jaso zuen 2003an, eta Turner Prize saria, 2017an.



Eric Baudelaire

Un Film Dramatique (2019)

Z aretoa

2021eko azaroaren 19tik 2022ko urtarrilaren 9ra

Zertan ari gara elkarrekin? Bigarren Hezkuntzako Dora Maar eskolako zinema-ikasleek eta haiekin lau urtez lan egin zuen Eric Baudelairek behin eta berriz egin duten galdera da. Galdera politiko horri erantzuteak —boterearen, indarkeria sozialaren eta nortasunaren irudikapenak dakartza berekin— ikasle bakoitzaren berezitasunari justizia egingo zion zine-matografia-forma bat bilatzera eramán zituen, baina baita beren taldearen funtsari ere. Zer ari gara egiten elkarrekin, dokumentala edo fikzioa ez bada? Beharbada, film dramatiko da. Denborak bere lana egiten du ikasleen gorputzetan eta diskurtsoan, bakoitzak bere izenean hitz egin dezake besteentzat filmatzean, eta guztiak bihur daitezke filmaren egilekide eta beren bizitzako subjektu.

Eric Baudelaire (Salt Lake City, 1973) artista eta zinemagilea da. Bere azken film luzeen artean aipatzekoak dira *Also Known As Jihadi* (2017), *Letters to Max* (2014), *The Ugly One* (2013) y *The Anabasis of May and Fusako Shigenobu, Masao Adachi and 27 Years Without Images* (2011). Hirurak zinema-jaialdietan banatu dira, besteak beste, Locarnoko jaialdian, Toronton, New Yorken, FID Marseillen eta Rotterdamen.

ARTIUM MUSEOA BILDUMA A0, A01 eta A02 aretoak


Artium Museoa Bilduma izaera publikoko (Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurjaritza, Gasteizko Udala eta Eusko Legebiltzarra) ondare-funts garaikide paregabea da. Eraikitzen ari den bilduma honek ibilbide bat egiten du gaur egungo arte-adierazpenen aniztasunean zehar, eta funtsezkoa da azken hamarkadetan Euskal Herriko testuinguruan garatutako arte-praktiketara hurbiltzeko.

Museoak Bildumako funtsen eta erosketa berrien erakusketa eta txandakatzeko programa bat aurkezten du, haren osaera-prozesuen berri ematen duena, eta hura ezagutarazten laguntzen duena.

Emakume artistak Bilduman sartzea eta ondare publikoa kontserbatzea eta ikertzea ere Museoaren 2021eko programaren ardatz nagusiak izango dira.

A0 aretoa Txandakatzeak

Zeru bat, hamaika bide erakusketarako ekarpen berriak



Amets egoera loak artuta, 1982. Juana Cima

Zeru bat, hamaika bide...

Bigarren bidea

2021eko martxoaren 5etik aurrera

Bere jatorri ilustratutik hasita, feminismoa internazionalismoa izan da beti. 1975ean, Espainian diktadorea hil zen urtean, feminismoaren Hirugarren Olatu Handiak, 60ko hamarkadatik Atlantikoaren bi aldeetan garatuz zihoanak, mugarri bat gainditu zuen Emakumearen Nazioarteko Urtea izendatu zenean eta Nazio Batuen Erakundeak babestutako Emakumeari buruzko lehen Mundu Konferentzia Mexikon ospatu zenean. Olatu hori bera artearen arlori ere iritsi zen lehendabiziko aldiz, artearen eta feminismoaren arteko elkargunean praktika artistiko eta teorikoa sortuz. Mugimenduak oihartzun zabala izan zuen nazioartean, besteak beste, Linda Nochlin-en *Why Have There Been No Great Women Artists?* (zergatik ez da historian artista emakume handirik egon?) artikuluari esker.

Mugimendu antifrankistekin batera, mugimendu feminista hasiberri bat, tartean artistak ere badituena, emakumeen diskriminazioaren, zapalkuntzaren eta esplotazioaren aurka hasi zen lanean Euskal Herrian. Hala, 1977an, Euskal Herriko Emakumeen lehen Jardunaldiak egin ziren Leioan, eta artistak arte-erakundeetatik baztertzeko zirelako kezkatuta zegoen mugimendu feministak erakusketak antolatu zituen: 1981eko, 1983ko eta 1989ko *Emakumeok Gaur* erakusketak Bilbon, eta 1986ko eta 1987ko *Emakume Artistak* Donostian.

Horietan, Juana Cima, Itziar Elejalde eta Juncal Ballestín artistek parte hartu zuten, besteak beste, eta bigarren bide horretan barneratzen hasi ziren, beren buruari nor eta nola ordeztu zuten galdetuz, emakumeak objektualizatzen dituzten estereotipo femeninoak salatuz, beren ikuspegitik emakumeen irudikapenak sortuz eta erakunde artistikoak zalantzan jarriz. Mugimenduaren ikonografiaren zati handi bat (kartelak, liburuxkak, eranskailulak, etab.) ekoitziko zituzten artista horiek. *Zeru bat, hamaika bide* erakusketak testuinguru horretan sakontzen du, garaiko pieza artistikoen eta dokumentazioaren bigarren emanaldia den *Bigarren bidea* honekin (*Hemen dira hutsunean igeri egindakoak* izan zen lehena).



Izenik gabe, Gure Artea sariak, 1985. Juan Luis Moraza

Ondare publikoa eraikiz

2021eko irailaren 24tik aurrera

Ondare publikoa eraikiz erakusketak Artiumen garatutako ikerketa-ildoari erreparatzen die, Museoak sustatzen duen titulartasun publikoko bildumak kontserbatzeko eginkizun garrantzitsua lehen planora eramanez. Horrela, *Zeru bat, hamaika bide* erakusketak obra eta egile berriak bilduko ditu udaren ondoren, 1980ko hamarkadatik 2002ra arte Euskal Herrian garatutako diskurtso eta praktika artistikoen inguruan proposatutako ibilbideak zabalduz.

Zentzu horretan, Artium Museoak ireki zenetik 20 urte betetzearekin batera 2022an 40 urte beteko dituen Gure Artea sarietako lanen sorta hautatu batek garrantzi berezia izango du bertan. Izan ere, Museoaren Bilduman gordetako lehiaketa honetako funtsetan dauden obrek presentzia nabarmena izango dute 2021eko azken zatian erakusketan dauden ibilbide historikoen barruan, eta Bildumari eskainitako aretoetan ikusgai dauden lehiaketako beste pieza batzuekin bat egingo dute.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin batera ondarea sendotzeko egindako lanaren ondorioz iritsi dira Museoko aretoetara Gure Artea lehiaketako funtsak.

A01 aretoa

Zeru bat, hamaika bideri lotutako azterketa-kasuak



Material dokumentalak. Gerardo Armesto. *Zeru bat hamaika bide*

Gerardo Armesto

A01 aretoa

2021eko martxoaren 31tik ekainaren 20ra

Gerardo Armestoren (Vitoria-Gasteiz, 1949) erakusketa hau *Zeru bat, hamaika bide. Praktika artistikoak Euskal Herrian, 1977-2002* aldian Bildumaren proiektuko azterketa-kasu berri bat da. Erakusketak 1980ko hamarkadan bideoan egindako lanen sorta hautatu bat aurkezten du, zirriborro eta marrazkien koaderno, maketa eta eskultura-objektuekin batera. Pinturan egindako lehen lanen ondoren, irakaskuntzan erabilitako formaren, kolorearen eta argiaren pertzepzioa aztertzea izan zen Madrilgo Bideo Jaialdi Nazionalean saritutako 1981eko euskarriaren hautaketa bezalako lanen eztanda-eragilea, eta baita ondoren analogikoki eta esperimendazio digitalaren bidez garatutako animazioena ere. Orain ikusgai dagoen mugimendudun irudizko *Disfraces para un cubo II* izeneko lehen lan horietako batek Espainian sortzen hasi berria zen bideoaren erreferentziazko *La imagen sublime* erakusketan parte hartuko zuen, 1987an MNCARSen antolatua.



Mano 1, Mano 2, Pie 1, Pie 2. Familia González Placer gordailua

José Félix González Placer

A01 aretoa

Uztailaren 2tik urriaren 3ra

José Félix González Placer (Vitoria-Gasteiz, 1951-1991) Bilboko Goi Eskola/Arte Ederren Fakultatean ikasi eta handik sortutako artista izan zen. Jarduera zabala garatu zuen joan den mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran eta laurogeiko hamarkada osoan. Oso interes artistiko zabalak izan zituen. Nabarmentzekoak dira margolaritza, ilustrazioa eta animazio zinematografikoa. Azken horretan aitzindari izan zen Euskadin. Gizakia eta honen identitateak interesatu zitzaizkion bereziki, eta arreta handia jartzen zien alderdi sozialei. Figurazioaren bidetik ibili zen, argi eta garbi, lerro dotoreak marraztuz, eta pop britainiarraren eragin handia izan zuen, Kitaj eta Hockneyrena, besteak beste. Azterketakasu honetan Artium Bildumako lanak eta artistaren artxiboko dokumentu sorta zabal bat erakutsiko dira.



KOMISARIO BERRIAK 2021

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sustaturiko KOMISARIO BERRIAK (KBK) proiektuan Artium Arte Garaikideko Euskal Museoak (Vitoria-Gasteiz), Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak (Donostia) eta Azkuna Zentroak (Bilbo) parte hartu dute.

Artium Museoaren proposamenaren xedea da komisariotzaren alderdi historiko eta narratiboari erantzutearen garrantzia aintzat hartzen duten praktika kuratorialak ikertzea eta garatzea: azterketa-kasu bereziak, artisten ibilbideak, testuak, erakusketak, espazioak eta Euskadiko praktika artistikoen testuingurua garatzeko garrantzitsuak izan diren beste ekimen batzuk. Programaren 2021eko edizioan aukeratutako proiektua egongo da A01 aretoan.



Daniel Llaría



Nadia Barkate



Lorea Alfaro

A02 ARETOA

TESTUINGURUAK BILDUMATIK ABIATUTA EROSKETAK

Erakusketa-ziklo berri hau Museoko A02 gunean jarriko da abian, duela gutxi Bilduman sartu diren artisten ekoizpena ezagutarazteko. Proposamen honen bidez erakusketa sorta bat abiaraziko da, Museoaren beste programa batzuekin batera Artium Bilduma, ia 2.400 artelanez osatutako izaera publikoko funts garaikide aparta, ezagutarazteko xedez. Esparru horretan, piezak, dokumentuak eta artxiiboak museo-funtsetan sartzeak artearen arloan gaur egun garatzen ari diren eztabidak eta praktikak esploratzen eta horien berri ematen laguntzen du. Hori da, zalantzarik gabe, Museoaren eginkizun garrantzitsuenetako bat: ondare garaikidearen ekoizpena sustatzea eta artistak eta haien ekoizpenak bultzatzea. Bildumaren erosketa-programak helburu hori lortzen laguntzen du, eta, gainera, ezinbesteko tresna da dinamismoa eta konplexutasuna ezaugarri dituen gaurkoa bezalako une bati pultsua hartzeko.



Get Rich #16. Daniel Llaría, 2019

Daniel Llaría

A02 aretoa

2021eko otsailaren 19tik maiatzaren 23ra

The Get-Rich laneko jantzien (buzoa, bata) deseraikitzean eta elementu industrialekin (zementua, *packaging*-ak, zingilak, metala) duten harreman fisikoan oinarritutako eskultura sail zenbakitua da. Piezak klase-identitateari buruzkoak dira, espazio-denboran langile fordista (ezizenez peoi sindikatua) eta postfordista (ezizenez sortzaile *freelance*) bereizten dituen. Hemen, guraso sindikalista batzuk bezain solemnea den proto-nostalgia lunpenproletarioa iradokitzeke erabiltzen da eskultura, eta haien ondorengo sortzaileak bezain zinikoa (edo alderantziz). Izenburuak, «Aberastu-zaitezarrak», hip-hoparen hizkuntzaren isuriaren mende jartzen du eragiketa hau guztia. Zuzenean intelektualismora jotzea da helburua, zeinarentzat langileriak ez baitu berezko ideologiarik eta botereak eman diona —prekarioki— egokitu besterik ez baitu egiten. Hemen, artista errealitate horren adibide gisa aurkezten da, bere errealitatea arte-objektu gisa kapitalizatzeke *get-rich-quick-scheme* delakoaren alde eginez.

Llaría Arte Ederretan lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean. 2015ean New Yorkera joan zen bizitzera, Fulbright beka bati esker, eta Parsons The School for Design eskolan arte-master bat egin zuen. Haren prestakuntza Skowhegan School of Painting and Sculpture eskolan osatu zen 2017ko udan. Talde-erakusketa ugaritan parte hartu du: *Antes que todo* (2010, CA2M), *First Thought Best* (2014, Artium) edo *Itzuli Barik* (2019, Kulturate). Bakarkako erakusketen artean, honako hauek nabarmentzen dira: *think local fuck global* (2009, Montehermoso), *aita camp da* (2019, Carreras Múgica) edo *Holes and Poles* (2020, BilbaoArte).



Tuya gigante, tuya occidental saila, 2019. Nadia Barkate

Nadia Barkate

A02 aretoa
2021eko ekainaren 4tik irailaren 6ra

Nadia Barkateren lanak marraztearen berezko espazio-denbora eta inertziak ditu aipagai. Teknikaren eta desioaren arteko zirkulazioaz ere mintzo da, eta baita gorputzean esperientziak uzten duen arrastoaz, identitate, barnekotasun eta bestetasun nozioez ere, besteak beste. Haren praktikan, nolabaiteko narrazio-borondatea dago, egunerokoa, eskuzkoa eta hitza elkarrekin lotzen dituena. Keinua eta teknika tradizionalak lantzen ditu, mugak gaindituz eta forma edo zehaztasuna, argitasuna edo haluzinazioa galduz. *Tuya gigante, tuya occidental* Barkatek 2018an zehar egindako formatu txikiko eta handiko akuarela talde baten parte da. Artistaren esanetan, bere estudioan murgilduta egondako uneetan sortu ziren, kontzentratuta zegoen bitartean eskuekin egiten zituen keinuez jabeturik.

Bakarkako eta taldeko erakusketak egin ditu hainbat espaziotan, hala nola: Lätost Gallery (Praga, 2020) Bombón Projects (Bartzelona, 2019) Westfälischer Kunstverein (Münster, 2019), Bilboko Arte Ederren Museoa (2018), Tabakalera (Donostia, 2018), etHall (Bartzelona, 2018), Alhondiga (Bilbo, 2018), Carreras Múgica (Bilbo, 2015), Altes Finanzamt (Berlin, 2015), Espai 01 (Olot, 2012), Montehermoso (Vitoria-Gasteiz, 2010).



<3 S P S <3 I N K, 2016-2017. Lorea Alfaro. Bideoa

Lorea Alfaro

A02 aretoa

2021eko irailaren 17tik 2022ko urtarrilaren 9ra

2014an LA sortu zuen, marka huts bat, irudia sortzeko ingurune babestu gisa. Moda eta amateurismo hutsa. Bere iruditeriaren interesa eta horrek guztiak gaurkotasuneko esperientzia jakin bat sortzeko duen gaitasuna.

CA2M-en, Guggenheim Bilbao-n, Bilboko Arte Ederren Museoan, Jorge Oteiza Museoan eta CarrerasMugica, Tatjana Pieters eta Elba Benitez galerietan erakutsi ditu, besteak beste, bere lanak. Azkenekoen artean nabarmentzekoak dira *No lo banalices* (CarrerasMugica, 2018); *Un mundo sin cualidades* (CarrerasMugica, 2020); *Yo, la peor de todas* (Jorge Oteiza Museo, 2017) eta *Estimulantes: circulación y euforia* (Tabakalera, 2017).